

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika

Gure konpromisoa

Avanzaren Euskadiko Dibisioko zuzendaritzak bere konpromisoa adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra eta benetakoa inongo diskriminaziorik gabe integratuko duten politikak ezartzeko eta garatzeko eta gure erakundearen barruan benetako berdintasuna lortzeko neurriak sustatzeko, gure kudeaketaren printzipio estrategikoa da-eta.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gure erakundearen printzipio estrategikotzat hartzen dugu, gure jardura garatzen dugun esparru guzti-guztietan, bai barruan, bai herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuetan, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Enpresan lan egiten duten emakumeei eta gizonei tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea, enplegua lortzeko aukerari, prestakuntzari, sustapen eta garapen profesionalari, ordainsariari, parte-hartzeari eta lan-baldintzei dagokienez.
- Enpresako langileen bitzta pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa ahalbidetzea, ardura partekatua sustatuta.
- Lan-ingurune eraginkorra, segurua eta errespetuzkoa lortzea, prebentziorako neurriak ezarriz eta efizientziaz jokatuz sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera edozein jokabideren aurrean, gure erakundearen ez baitugu inondik ere onartuko.
- Langileak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sentibilizatzea eta prestatzea, eta berdintasun-printzipioa prestakuntza-jardueretan integratzea.
- Hizkuntza eta irudiak modu sexistan ez erabiltzea, gure barneko zein kanpoko komunikazioetan.
- Gure gizarte-ingurunean berdintasuna bultzatzen duen erakundea izatea, eta, horretarako, gizarte-aldaketak sortzen lagunduko duten jarduketak sustatzea.
- Berdintasun Planeko ekintzak eraginkortasunez ezartzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea.

Zuzendaritzak pertsonalki hartzen du bere gain printzipio horiek ekintza-planetan hezurramitzeko lidergoa, baita enpresaren estrategia horretan plantillak osatzen dituzten pertsona guztien parte-hartzea motibatuzko eta sustatzeko lidergoa ere.


Juan Santiago Hernández
Euskadiko Dibisioko zuzendaria
2020ko urria

